

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Zenbaki bat besterik ez?

Mikele López de la Hoz

Oporrak... Berandu esnatu, eguzki izpiak leihotik sartzen, eta deus ez egiteko beharra. Ba al dago gauza hoberik? Bai, badago; atzoko parranda, mundiala benetan. Ama arratsalde hasieran joan zen lanera eta etxean utzi gintuen bakar-bakarrik! Baina ordainetan, gaur bazkaria nik egingo nuela zin egin nion. Oraintxe 12:17ak dira, ezer baino lehen ura limoiarekin, atzokoa pasa ondoren nire gorputzak benetako “detox” bat behar du. Komunera joan, aurpegia garbitu, txisa egin, pisatu... eta prest; has gaitezen sukaldatzen.

Gaurko menua, pasta pesto erara; ondo egotea espero dut, izena gustuko nuelako aukeratu nuen soilik, pasta pesto karkarkar, ez al da animaziozko pertsona batentzako izen bikaina? Beno, eta berdea izateak osasuntsua izateko puntu gehiago ematen dizkiolako. Harrigarria da 15 urte puska izanda, oraindik espageti batzuk egiten ez jakitea, horretarako dago google. Bide batez, iker dezagun. Dagoeneko ezagutzen dut pastaren balio energetikoa eta pestoarena? Harrituta geratu naiz, tomatea baino sei aldiz gehiago!?! Beno, ez da deus gertatzen, ikaragarri ona da usaina eta gainera arratsaldean kirolean aritzea pentsatzen nuen hau erretzeko, bai, bai, merezi du.

Noski merezi izan duela, familia osoak txalotu nau, zoragarri zegoen! Olio gehiegi agian, ez dakit nola, erdia sukalde osoan zehar sakabanatuta dago. Niri eskerrak emateko, haiek sukaldea jaso eta txukuntzea proposatu diet, ez zaie nire ideia gehiegi gustatu. Beraz, sukaldea jasotzen arratsalde erdia joan zait. Denbora dut oraindik siesta motz bat egiteko, eta ondoren txirrindula.

10km inguru eginen ditut, goazen! Lehenengo bost kilometroak bikain, hurrengo bostak zailak eta orain datozenak are okerrago. Txirrindularen pantailatxoan 10 kilometroak gaintitu ditudala jartzen du, hala ere soilik 420kj erre ditut, nola izan daiteke hori posible? 420kj... 140 kaloria inguru dira... bazkari laurdena ere ez da. Beno, oraindik gehiago egin dezaket, 450era iritsi arte gutxienez. Zorabiatzen hasia naiz, hain gutxi geratzen da... 446... 447... 448... 449... 450!!! Hamar kaloria gehiago, ez da hainbesterako, aldiz Everest mendia igo berri banu bezala sentitzen naiz. Bihar ikusiko dugu, zeinen azkar ahazten zaidan sentimendu hau, axubetez beteta esnatzen naizenean.

Everest mendian ez luke garrantzirik izango, hemen ordea nabaria da, ze kiratsa! Ordu erdia dut etxetik atera arte, korrika batean banoa dutxara. Biluztu bezain pronto, pisua. 74,4 kg ditut, ez dago jaisteko modurik, beno, izerdia oraindik gainean dut, agian dutxatu ondoren... Atera eta 74,1kg, 73tik hain gertu. Ea ilea lehortuta... 74kg. Azkenaldian nahiko luzea dut ilea, agian pixka bat moztu beharko nuke. Guraizeak hartu eta zitzu bizian bukatu dut, berriro pisatzerakoan 73,9kg hau lasaitasuna. Ziur segituan ahaztuko dudala, ez du garrantzirik zenbaki bat besterik ez da, ezta?

Jantzi, autoa hartu eta zinema hasi baino 8 minutu lehenago iritsi gara. Nire amak erregalizak hartu ditu, agian bat hartuko diot. Krispetak hartuko nituzke baina kutxa oso bat ez dut orain jango. Nire amak mugikorra isilarazi bitartean, erregaliz poltsa hartu dut, bat hartzeko asmoz. Eskuetan dudanez, balio energetikoa miatu dut, ama konturatu gabe noski. Txipa aldatu eta mediku moduan jarriko litzateke, sinets nazazue, inork ez du horrelakorik nahi. behera...

Bakoitzak 12 kaloria, pentsatzen nuena baino nahiko gutxiago; txokolate ontza erdia, ia 100g letxuga... Oraindik 150 kaloriatara iritsi arte denbora dut. Pelikula hasi denetik, 3 jan ditut dagoeneko. $12 + 12 + 12 = 36$ kaloria = lindor bonboi bat. Ez da hainbesterako, pelikula lasai ikusiko dut, erregaliz bat gora edo bat behera...

Bukaeran, bat hartzera joan naiz eta bat-batean azkenekoa zela antzeman dut. 12 kaloria bakoitzak, eta 20 inguru zeuden... 240 kaloria! Afaria eginda, ez dut gose gehiagorik, eta edozein kasutan ez dut uste afaltzeko nire familiak askoz gehiago jango duenik.

Baina hara nolatan, gaur etxerako bueltan nire ahizpak deitu nau, hanburgesak eramango genituen galdetuz. Nik ez dut deus hartu, etxera iristean "colacao" bat hartu eta ohera. Esan eta egin, baina nire ahizpek janaria eskainiz gero, ezin dut ezetz esan. Patata batzuk eta ohera. Oraingoan bai, oherantz joan naiz eta bidean sukaldeko atea aurkitu dut, erdi irekita, niri sartzeko eskatzen bezala; noski ezin izan dut paso egin, sartu eta txokolate apur bat hartu dut.

Pijama jarri baino lehen berriro pisatu naiz, azken aldiz jada. Balantzara igotzen naizen heinean behera begiratzuz, gutxinaka-gutxinaka zenbakiak gora nola doazen ikusteko. Azkenik eten da igoera, gustuko nukeena baino gehiago, medikuak eskatu zidana baino gehiago, batzaz bestekoaren gaintetik ere... Zergatik?

Kirolzalea naiz, laguneren artean handiena ni naizela esango nuke, hala ere nire lagun gehienek ez dituzte arazo hauek. Elikadura nahiko osasuntsua dut, nire kalkuluek huts egiten ez badidate ez naiz 2000 kalorietatik inoiz gehiegi aldentzen. Eta azkenik, ispiluan begiratzea; ez nago batere gaizki. Beno, tripa pittin bat sartu, bizkarra tente jarri eta bikain. Bikain... Nahiz eta logikoa izan, nire bihotzak ez du "bikain" hori ulertzen, etsipena berriz ezin hobe kontrolatzen du.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA NARRAZIO 14- 16 URTE

BIGARREN SARIA

Hainbeste ordu honetan pentsatzen galduak, ez dago modurik. Agian laguntza eskatu beharko nuke? Norbaitek nire begiak irekitzea, gaizki zer egiten dudan jakiteko. Baina ez da beharrezkoa, ezta? Zer garrantzi du 73 edo 74 kilo pisatzeak? Zenbaki bat besterik ez da! Egunero behin eta berriro errepikatzen dudan zenbakia; obsesiotik gertu nago edo bertan dagoeneko. Baliteke hain arraroa ez izatea, azkenean gizarte osoa zenbaki horrekin obsesionatua dago, nirea afera soilik artaldea jarraitzea da. Hobe esanda, artaldearekin eramaten uztea. Gu guztiok uzten ditugu gure buruak artaldearen menpe, hala ere, adi ibiliz gero gure eskuetan egongo litzateke hau gelditzea, eta pisua zenbaki bat besterik ez izatea lortzea berriro.